

"BERTSOLARITZAREN KONTZEPTUARI BURUZ"

Joxe Azurmendi

Hegoaldeko bertsolaritzaz hitzeginbehar dut eta honetaz uste dut esan genezakela, eta gehiago Gipuzkoakoaz eta ingurukoetaz, aski bildua eta aztertu dagoela. Baina azterketa hori nik uste dut egin izan dela modulo batzuen barruan, hau da, Lekuonak ezarri dituen modulo batzuen barruan, eta handi aurrera ez dela aski egin orain arte eta ez da egin gehiago ez delako arkitzen zein beste moduetan azterketa hori jarraitu liteken eta gutxi asko lehendik idatzi edo argitaratuta daukadana gogoratuko dut nik gaur berriro labur xamar.

Problema bat daukagu noiz hasi zen bertsolaritza. XIXgn mendeko bertsolaritzaz datu asko ditugu; ez aski baina bai asko. (Dokumentu pilo bat geratzen da aztertu gabe). Noiz hasi zen; beraz, bertsolaritza? XIXgn mendetik aurrera ez dakigu ezer edo aztarren batzu bala ditugu? Non agertzen da sozialki bertsolaritza? Aski garbi ikusita dago, gipuzkoarako behintzat, lekuz mugatu litezkeela, herri batzuetan edo auzo jakin batzuetan ere. Fenomeno hori badirudi ukatu ezinezkoa dela eta garbi ikusten dela hemen ere. Baina, sozialki, non, hau da, zein langile jende edo zein eginbidetako jendea zen bertsolaritzan ibiltzen zena? Eta, beraz, nolako funtzio soziala betetzen zuen gizarte horretan bertsolariak, hau da, zergatik eta zertarako eta zein jende konkretu baliatu izan da Euskal Herrian bertsoaz, zeren ez dago "a priori" pentsatzerik Euskal Herri oso osoaneta hemengo klase sozial guztiak bertsolarizaleak izan zitezkeenik.

Honi erantzuna emateko ez daukagu historia hutsa egiterik; horretatik aurrera jo beharra dago; azterketa formal batzu-etan ere ez dago gelditzerik; hain zuzen, azterketa formalak aurrera arazteko ere behar dugu gaur galdera sozialarekin elkartu.

Bertsolaritza noiz hasia ote den edo azkeneko urte hauetan ba-
dirudi bi tesi agertu izan direla: -bata da Lekuona berak aipatu due
na: hau izango litzateke euskalduna euskalduna denez gero beti ber-
tsolaria izan da (berak ez du horrela inon esaten, dakidanik, baina
askotan aipatu izandu bertsolaritzaren tankera neolitikoa; oso bere-
zia da honelako afirmazioa zeren nolako melodiarekin kanta zezaketen
neolitikoak; dakigunez musikaz askoz geroago ere oso modu bitxiak
zeuzkan, ez behintzat bertsolaritzarako modukoak, dirudienez. Aipatu
izan du ere bertsoalritzaren tankera arkaikoa, artzaintzatik dator-
kona, baina hori ez da ezer esatea oraindik ere bait daude artzaiak;
beraz oraintxe bertan sortua izan daiteke horregatik balitz. Aipa-
tzen du ere sarri-sarri Dabidek inprobisatzen duela, Virgiliok nola
aipatzen dituen "Menalkaz eta Dameta"). Dena dela Euskal Herrian ber-
tsolaritza betikoa dela esan dutenak asko izan dira eta nahiko buru-
etan sartua dago euskaldunak beti kantatzen zuela eta gainera beti
bertsotan egiten zuela. Hau ukatzea oso zaila da, bistan da, baina
frogatzea ere bai.

Beste joera ere zabaltzen hasi da gure denboretan zientzia hes-
tuagoa egin nahi izaten bait da, esanaz bezala bertsolaritza Euskal
Herrian fenomeno berri berria da. Hau, oker ez banago, Xabier Amuri-
tza berari entzuna diot Donostian bertan eta, gutxienez defakto Za-
balak horrela operatzen du bere liburuetan: bertsolaritza haste da
1.802an puntu. Horrelaxe, uste dut, dauzkala datuak bere liburuetan.
Arrazoa, berriro, oso sinplea da: datuak hortik hasten zaizkigu edu
ditzen, publiko aurrean ibili diren bertsolari konkretu batzuen da-
tuak.

Pentsatzen dut, gaur bertsolaritzaren aztertzaileari ez zaiola
asko axola juxtu noiz hasten den bertsolaritza eta askoz ere esan
ahal izatea euskaldunak beti bertsolariak izan zirela ala ez.

Hala ere pentsatzen dut desastre bat izango litzatekela azter-
tzailearentzat bertsolaritza 1.802an sortu dela esatearekin eta ha-

rrez gero aztertu behar dugula. Han txarra da aztertzailearentzat ere arrazoi bategatik: oso denbora mugatua da fenomeno literario eta kultural oso zabal batentzat. Zahartzaroak badu garrantzi handia beste alde batetatik hau da: bertsoalaritza non egiten zen inguru sozial posiblea eta zertarako egiten zen erakustea; beraz, zahartzaroa edo zahartasuna bertsoalaritzari bilatzea edukiko luke, bertsoa bera, bai gaurkoa ere, hobeto ulertzeko. Piarres Xarriton ere XIXgn. mendetik eta XVIIIgnarren azkenetaraino. Dokumentuz ez dago askoz gehiago josterik; handik aurrera dokumentazio oso gutxi dago baina egia da, bertsoalaritza agertzen den momentuan bertsoalaritza esaterako Hasparnen, edo bai eta lehenago Beñat Mardo Zuberoan, sozialki oso zabaldua agertzen dela eta gainera ohitura sozial oso finkatu batzuekin, hau da, apostuak egitea, burla soziala egitea edo jauntxoari ohorezko bertsoak egiteko. Beraz, honek esan nahi du bertsoalaritza badagoela eta oso zabaldua dagoela XVIII gn. mendearen bukaeran eta XIX gn. hasieran eta funtzio sozial jakin batzuek betetzen dituela. Hau oso inportantea da, honelako funtzio bat ez baita egun batetatik bestera hartzen, ibilaldi luze baten ondorena baizik.

Gainera, bigarrenik, agertzen den bertsoa, formalki ere, nahiko konplexua agertzen da: Beñat Mardo eta hauek bi puntuko bertsoa besterik ez daukate oraindik baino ia denbora berean bederatzi puntua arkitzen dugu Gipuzkoan, hain zuzen, Fernando Amezketarrarekin; eta bederatzi puntuko bertsoetaraino iristeko bertsolariak asko ibili behar izan du.

Beraz, bai sozialki, bai formalki aurrerabide oso handia arkitzen zaio bertsoalaritzari dokumentalki arkitzen den momentuak.

Eta horregatik aurrera, zer arkitzen da?.

Lehenengo, bertsoak, zaharragoak direnak, XVIII gn. mendekoak dexente arkitzen dira, hiru puntukoak behintzat, naiz eta gehiagokoak ere bai.

Gero, erromantzeroak, ez dago dudarik, bertsolaritza herrikoi-tik duela iturburua eta handik desarroilatu dela, nola sortu den esa tea ere erraza ez izan arren.

Gero, koplak daude, nahiz eta eztabaidatua izan hori bertsolaritza den ala beste zerbait (Lafittek beste zerbait bezala jotzen du; Lekuonak bertsolaritza zahartzat) koplak bertsoak baldin badira XVI gn. menderaino joan gintezke.

XVIIIgn. mendean hasten dira gipuzkoarrak edo hegoaldeko euskaldunak euskaraz idazten. XVI eta XVII gn. mendeetan erdaraz idazten dute, hain zuzen, inperioari lotu direlako buruz belarri erabat eta, hain zuzen inperioan leku bat bilatzen dutelako, Amerikari begi ra batez ere. Orduan apologista pilo bat ditugu, danak erdaraz idazten eta bertsoen batzu jasoaz (Garibaien kasuan behintzat).

Baina XVIII gn. mendearen haseretan arkitzen da fenomeno bat hegoalderan: euskal literatura hasten da teatro bezala, eta teatro hori bertsoan egiten da, eta gainera bertsolari batzuei parte hartu arazi egiten zaie. Beraz, baziren bertsolariak XVIIIgn. mendearen ha sera hegoaldean. Zenbateraino gero, benetaz, hau da, kalean zebillen bertsolaria isladatzen duten zailagoa da ikustea, bistan da. Teatroan bertsolari landu bat agertzen da beti, edo landuago bat kalean ibili zitekeena baino.

XVII gn. mendean dauzkagu Ohienartek (hauek iparaldekoak dira) eta Johannes Etxeberrik eta abar aipatzen dituzte euskaldunen bertso zaletasunak manual devozionalen, adibidez. ("... gure nazioa dela koplak maite duena"; koplak kasu honetan bertsoa da) Larramendik ere aipatzen ditu ere bertsolariak, hain zuzen, bere "El imposible vencido" ren azken azkeneko partean aipatzen ditu justu kritikatzeko esanez: bertsolari txatxu horiek ez dute beti melodiari jarraitu besterik egiten eta horrela hizkuntza estropeatu egiten dute.

XVI gn. mendean dauzkagu kantu etikoak; euskal literatuan oso estimatuak guretzat daukagun gauza zaharrena bezala hori hartzen dugulako. Nola agertzen zaigu bertsolaria kanta epiko hauetan: inprobisatzaile bezala agertzen zaigu. Hau oso inportantea da bertsolaritzan, bertsolaria ez bait da beti inprobisatzailea izan; izan da inprobisatzailea giro sozial batzuetan. (Bertso paperen egilea ez da derrigorrezko inprobisatzailea; etxean, behintzat, badu astia bertsoak idazteko. Badirudi, hala ere inprobisatu egiten dutela gehienak baina beti dute astia zerbati aldatzeko.

XVI gn. mendeko kasu hauetan Garibaiek kontaktzen hau digu, (beti gerran izaten ziren euskaldunak eta askoz lehenagoko gauzak kontatuz, XIV gn. menderainoko gauzak kontatuz).

"Y mataron a Martin Bañiz junto a Ibarreta, caserío suyo. Doña Sancha Ochoa de Osaeta hizo gran llanto, muy usado en este siglo (hacer llanto da bertsoak kantatu) por la desgraciada muerte de Martin Bañez, su marido y soledad suya y de sus hijos y cantó muchas en dechas que en vascuence se llaman "eresiak".

Honelakoak askoz gehiago ezagutzen dira: Milia Lasturkoa, Doña Sancha Ortiz, Pedro garcía del Ororen arreba eta abar eta Ibarguren Katxupinen historian ere aipatzen diren emakumeak eta, denbora honeetatik ezagutzen ditugun ia denak, bat bakarra ezik (sei ezagutzen direla, XVI gn. mendean aipatutakoak baino XIV gneraino joan ahal izatezkoak) emakumeak dira; bat bakarra gizona. Gainera itxura badago, dokumentuetan gelditzen bagara, emakumeak izaten zirela bertsolari gehienak pareje hauetan, gizonak baino gehiago. Hau ez da Euskal Herriko originaltasuna; emakume bertsolariak joglareen artean ezagunak izandu dira baino, batez ere, arabeen artean. (Nik ez dakit arabeen eraginez edo satuko ote zen hona). Honek esan nahi du emakumeak funtzio sozial bat betetzen zuela gizarte hartan, hau da entretaniga garria edo dibertigarriarena, kanta eta dantza eta horrelako gauzak gortean eta gortetik kanpo egiten zituztenak, eta egiten zituzten

gauzen artean sartzen da ere bertsoak kantatzea.

Orain arte arkitu ditugun kanta epiko egiten duten emakume guzti hauek, jauntxoek inguru sozialean jartzen dira, nobleak ziren.

Beste datu oso polita ere badago, eta ez dut uste inoiz aipatu izan denik, Bizkaiko Foru Zaharrean; hau 1.452an idatzi zen baina lehenagotik zetorren. Foru honetan bi titulo gutxienez, bertsoaritzaren alusioz daude:

"Titulo 35. Ley 6ª

De aqui adelante, cuando quiere que alguno muera en Vizcaya o fuera de ella, por mar o por tierra, persona alguna de toda Vizcaya tierra llana, de villas e ciudad, no sea osado de hacer llanto mesandose los cabellos ni rasgándose al cabeza ni haga llantos cantando so pena de 1.000 maravedies a cada uno que lo contrario hiciere por cada vez."

Hauei "hiletariak" esan izan zaie eta Euskal Herrian oso zabalduak zeuden, (dokumentu asko dago horretaz) norbait hiltzen zenean negar handiak egiten zituztenak, ofizioz, eta bertsoak kantatzen zituztenak. Kurioso da oraindik Azkuek ezagutu dituela hiletariak. Beraz, nahiz debekatua egon eta ez bakarrik, Bizkaiko Foruan, Tolekodo Eliz-Biltzarretan ere, jarraitu egin zuen hiletariaren ohiturak.

Baina badago beste titulo bat, politagoa oraindik:

"Titulo 8. Ley 1ª.

En que casos se puede proceder de oficio y prender sin que se llamen los delincuentes so el árbol de Guernica. Primeramente dixeron que habian fuero ... salvo sobre ... y sobre mujeres que son conocidas por desvergonzadas y revolvedoras de vecindades y ponen coplas y cantares a manera de nivello infamatorio. (El fuero las llama profazadas)".

"Profazo" zen "declaración oficial de sinvergüenza". Ofizialki, beraz bertsolari emakume hauek burla bertsoak egiten dituzte. Esan dezagun ere, hau, beraz, nahiko zabaldua zegoela 4 edo 5 katurengatik ez bait da ematen lege bat.

Orduan, zein garrantzia du XIV eta XV gn. mendetan datu hauek arkitzeak.

Lehenago, niretzat, inportantea da bertsolaritza ez dela betiko, betikotasun linea hori hartzen bada, hau da, bertsolaritza ez da, se guru asko, beti gauza bera izan eta gure bertsolaritzaren konzeptua XIX gn. mendetik aurrera ezagutu dugun bertsolariaren arauera sortu-tako konzeptua da, beraz, ikañagarri mugatua. Eta gaur daukagu joera esateko: kanta epikoak ez dira bertsolariak, horiek literaturaren historiara; koplak, horiek ez dira bertsoak, folklorea dira; erroman-tzea, hori ez da bertsolaritza. Beno, nik uste dut horiek danak bertsolaritza izan direla, bakarrik beste inguru sozial batetan, beste forma batzuetan eta beste funtzio sozial batzuekin eta bai eta jende ere egina.

Bistan dago andere noble batek eta guduetan kanta bat egiten zuenak beste eskola batekin, beste giro batetan eta beste entzuleen-tzat egiten zuela bere bersoa eta zer esanik ez plazan, edo ez dakit nori burla egiteko bertsoak jartzen zituen "profazada" edo lotsagabe batek. Beraz, bi giro sozialetan zegoen bertso diferentea eta entzu-lego ere ezberdina.

XVI gn. mendeko datuaz bilduaz, ez dut orain xeheki joan nahi, baina nik, behintzat, forma desberdin hauek bereziko nituzke bertso-laritzan:

- 1.- Arkitzen dira garbi-garbi bertsolaritzatik datozenak, bertsolaritzaren forma guztiak dauzkatena eta da, nola ez, eliz-bertsoa; Santa Klararen bertsoak eta abar, arrantza-

leen mundutik eta abar. Hau XVIgn. mendetik arkitzen da eliz-bertso hay. Eliz-bertso esaten dudanean esan nahi dut santu edo santa edo jainko baten gorazarrez egiten den kanta. Geroago agertuko da beste eliz-bertso bat.

- 2.- Hiletariak edo inor hil deneko bertso landuak egiten zituztenak.
- 3.- Profazadak edo emakume lotsagabeak (gero hitzegingo dut zertxo bait gehiago honetaz).
- 4.- Andere bertsogile edo bertsolar nobleak.
- 5.- Gudan bertan parte hartu eta kanta egiten zituena, hau da, gudari bertsolaria. Ez bakarrik desertoreek egiten zituzten bertsoak-askotan honela esan bait da- eta ez eta karlistadatan ere nahiz eta bertso asko idatzi baiziki eta erdiarotik aurrera badaude testuak ere, adibidez Oñati eta Leinizekoen arteko gerratik sortu zirenak: Oñatikoen agintariak gerra irabazi baina zauriturik hiltzen zegoelarik egin zituen bertsoak eta 200 urte geroago Oñatiko jendeak gogoan zituenak.

Gudari bertsolariaren fenomeno oso dokumentatuta dago erdiaroko literaturan eta, oker ez banago, dokumenturik za harrena "Beobulf" kanta germanikoa da; kalkulaten da IVgn. mendean edo emango zitzaiola lehenengo forma eta IX edo Xgnean hartuko zuela gaur duen forma.

Euskal testuak aztertzen direnean, beraz, lehenagoko testuak, begiratu beharko litzateke zein giro sozialetak testuak dauzkagun eta hau esaten dut euskal edozein liburu zaharra hartzen direnean, askotan arkitzen ditugulako haseran dedikatoria eta bertso, zatiak eta abar, hauek bertsoak dira, ez guk ulertzen dugun bertsolaritza, baina bistan da bertsolaritza bizi zen inguru batetan gauza horiek egiten zirela eta inguru sozial kulto batetan egiten zituztela XVI edo XVIIgn. mendean euskaldunek bertso horiek liburuaren sarreran jartzeko.

Bestalde, fenomeno hau bera onartuta dago beste literatura batzuetan horrela izan dela; bakarrik beste literatura batzuetan ahozko literaturak ez duela gurean daukan inportantzia baina, gutxinez, literatura grekoa paratzen duenak edo pasatu behar izaten duenak arkitzen du, gutxinez, hiru modelo bertsoan eta hiru inguru sozial ere:

- 1.- bat, Homerorena, hau da gerra eta gudu epikako bertsolaria (Arrasate eta Oñati inguruan, batez ere, arkitu duguna)
- 2.- Gero, "Safo" edo "Safos" Lesgokoa bai eta ere bertsolari inguru batetan desarrollatu da eta irakurri duenak ikusten du nola bere poesia famatuak eskola batetan sortu dela (behar bada eskola hitza ez da oso egokia; liturjia edo kulto batetan esan beharko litzateke, baina neska eskola bat zen hark zeukana eta gero hortik sortu da ere fama txar hori). Safo Lesgokoak erakusten duena da Homero eta gudarien bertsolaritzan zegoen inguru sozialagatik apostua oso inportantea dela, baina Safo Lesgokoaren eskolan arkitzen dugun fenomeno da bertsolaritzan apostuak ez duela inportantziarik baina bai ritmoak, dantzak eta balletak, beste kirol modu bat da.

(Bertsolaritzarekin problema bat egon da beti: bertsolaritza arte bezala onartu ala ez onartu. Bertsolaritza arte bezala onartu ez dutenak Euskal Herria dexente izan dira eta gaur ere badira. Eta hau gustoaren mailaplanteatzen bada soluziorik ez du izango.

Ezin genezake bertsolaria poetarekin gonbaratu, nahiz eta bertsoak neurtuak izan eta abar; gainera bertsolaritzan baditu ere kirol elementuak, sentzu oso zabalean; kirola dantza bezala edo apostu bezala hartuta, zein inguru sozialetan desarrollatu den. Elementu hauek badirudi beti agertzen direla aztertu nahi denean zer den bertsolaritza, zer den bertsolari bat.

Honekin, hurrengo gaur dagoen problematxo batetara pasoko naiz: jende asko kexatzen da, eta arrozoiarekin, Amuritzak eta abarrek bertsolaritza berri bat ekarri dutelataz, eta bertsolari zaharrek ez dutelataz zer eginik, eta abar. Hau sakonduz esaten da: "bertsolari onak lehengoak ziren eta ez gaurko hauek, horiek eskolatuagoak dira baina ez dira bertsolariak".

Eskema bera aplikatuaz, lasai esan daiteke Lazkao Txiki bertsolaria da eta Xabier Amuritzza bertsolaria da; bakarrik, Lazkao Txiki-ren ingurua eta funtzio soziala eta, beraz, forma bertsolaritza egiterakoan bat da eta beste bat da Amuritzak ekarri duena; gero, sozialki gauza guztiak nahastu nola egiten bait diren, problemak sortu daitezke, baina problema hauek sozialagoak dira aztertzailearenak baino gehiago).

Benoa, testu zahar horietatik eboluzio edo aurrebide bat ulertzeko ba al dago? Honetaz, oker ez banago, ez dago ezer idatzita, nik ere ez daukat idatzita, baina gaur ausartuko naiz buruan daukadana, hipotesi antzera, rekonstrukzio posible egiteko.

XIVgn. mendearen aurretik zer zegoen Euskal Herrian? Uste dut oso zaila dala ezer zegoenik esatea; ezer ez zegoela esatea ere, baina datu inportante badago: XIVgn. mendearen aurretik Europa guztian arkitzen dugu bertsolarien fenomenoak, batez ere, Carlomagno agertu arte. Carlomagnorekin desgrazia handi bat gertatzen da herri arte edo literaturarentzat, eta da eskola pilo bat sortzen duela. Eskolak sortzen direnean eta, batez ere, jauntxoak eta jende nagusiak bere "kronistak" hartzen dituztenean. Kronista hauen ez dute bertsolariak egiten; liburu bat idazten dute latinez. Beraz, urteetan ez dugu ezer jakingo bertsolaritza fenomenoaz. Bertsolaritza hurrengo aldiz agertzen denean oso giro desberdinean agertzen da, ez gerra munduan, joglareen munduan baizik.

Joglareen aurretik zerbait bazegoen Euskal Herrian? Esaten da joglareek Nafarroako Gortean nahio sarrera zutela eta han bazeuden euskaldunak eta seguru aski beraiek euskaraz kantatu zutela hor nahiz eta dokumenturik ez egon, baina, agian, horretatik sortu dira geroagoko kanta epikoak sortu dituztenak. (Bide hau nahiko erraz suposa daiteke. Ez derrigorrez Iruneatik datozela baina inguru sozial horretatik bai).

Lehenago bertsolari bezala aipatzen diren kontuak dira IVgn. mendean San Amando euskaldunak konbertitzera etorri zenean eta sermoiak egiten ibiltzen zenean euskaldunen artean; orduak ba omen zegoen gizon bat San Amandori adarra jotzen, zirikatzen eta bertsoak botatzen, azkenik San Amando Euskal Herritik joan zelatik.

Gizon hau bertsolaria zela esaten da baina ez zen bertsolaria.

Lehenagoari buruz ez dago ezer esaterik. Badaitheke egotea; beste herri batzuetan egon da, eta, beraz, hemen ere oso posiblea da egotea, baina guk egin genezaken bertsolaritzaren historian lehenengo datuak problema batekin agertzen zaizkigu dagoenez, hau da. Carlo magnorekin sortu den etena^{rekin} agertzen zaizkigu. Beraz, gudarien bertsolaritza hori eten eta gero, joglareen bertsolaritza sortu eta gero, hasten da hemengo bertsolaritza.

Nola jarraitu zuten XIV-XVI mendeko bertsolariak gerorantz?.
Gutxi dakigu bainan:

- 1.- Hiletariak, behintzat jarraitu dute
- 2.- Eliz-bertoak jarraitu du (Arantzazu behintzat asko). Baina XVIIgn. mendetik aurrera eliz-bertso berri bat sortu da: irakaskuntz bertsoa edo pedagogikoa. Nola jendeak ez bait ze kien irakurtzen, jendeari dotrina irakasten zitzaion bertsoen bidez)

3.- Profazadak edo plazan bertsoak botatzen ibiltzen ziren andere haiek jarraitu al dute gerora?. Nik ez dakit nola esplika daiteken hau baina nere ustea da gaurko bertsolaria profazada hauetatik sortu dela, guk ezagutu ditugun geroko Fernando Amezketarra eta Hasparneko bertsolariak eta abar profazadaren eginkizun hauek dituzte: jendea dibertitu, merkatuan edo plazan, burla bertsoak eginge ta abar. Baina dolumentoak agertzen diren momentutik aurrera denak gizonezkoak dira, ez dira emakumerik agertzen. Beraz, non egon da ebaketa hori?. XVIgn. mendean hori egiten zuten guztiak emakumeak baziren eta XVIIIgn. mendean denak gizonak non dago haustura?. Nik ez dakit ondo non kokatu behar den etan hau baina ikusten da bitartean Trento sartu dela eta hemen go ohiturak zuzendu nahi izan direla eta predikarien saio gogorrak egon direla eta abar.

Dena dela nik uste dut gaurko bertsolaria bai sozialki bai formalki ez dela ez eliz-bertsolariaren jarraitzailea ez gudariena, ez hilatariena, ez dama nobleena, baina bai profazada klasikoen eta burlagileen jarraitzailea. Hau garbiago ikusten da bertsolaria sozialki nola ikusita dagoen begiratzen bada. Bertsolaria XIXgn. mendean oso herrikoa da, oso estimatua da, jendeari asko gustatzen zaio baina oso gaizki ikusia da sozialki. Bertsolaria erdi mozkorra tranposoa, kontuz ibiltzeko tipoa zen; eta oso berandu arte izan da hau. Hau profazadak utzi duten gauza bat da, zeren profazadak azokaz azoka ibiltzen ziren emakumeak beren ikusgarriak eginaz (ez kantatu eta txutxerriak saldu bakarrik, dirudienez).

Honelako emakumeen kontra eskomunio pilo bat dago. Hala ere jarraitu egiten zuen negozioak: Camino de Santiagon asko agertzen da.

Honek ekarri du Euskal Herrian profazadaren linean dagoen bertsolaritza hau gaizki ikusita egotea eta bertsolaritza errekuperatu behar izan da Euskal Herrian; Manuel Lekuonak lan asko egin du hone-

tan, esanaz euskaldunei bertsolaritza ez dela zikinkeria bat eta baliogarria dela.

Bertsolaria gaizki ikusia izatea ez da gaurko gauza, Platonek ere liburuska Txiki batetan ridikulizatu egiten du bertsolari bat.

Hau da, nere ustez, bertsolaritzaren beraren azterketarako go-goan hartu behar dena, hau da, zein inguru sozialetan sortu den nori zuzendua dagoen, zein forma erabiltzen duen, eta abar.

Eta azkenik, bertsolaritza alderdi pedagogikotik aipatu nahi nuke baina ohartxo bat besterik ez horretaz:

Bertsoa tresna pedagogiko bezala oso erabilia izan da. Hau lehenengo ikusten da ipuinean bertan. Ipuinaren barruan askotan agertzen dira bertsoak, arrazoi nemoteknikoengatik, memoriari laguntzeko, baina ritmoa sortzen duelako ere kontaktaren barruan.

Irakaskintzan, zuzenago, fabula, nik uste, hortik sortua dela. Fabula eta fabularen eginkizun pedagogikoa, alegiaren eginkizun pedagogikoa ez da bertsolaritzaren aplikazio konkretu bat besterik. (Buruan jasotzeko animaliak esaten zutena eta abar).

Memoriaren lagungarri den bertsoa, batez ere, orain arte eta zoritxarrez, uste dut Euskal Herrian Elizak bakarrik erabili duela; Elizak dotrina irabazteko erabili ditu bertsoak. Beste herritan beste gaiak ere irabasteko erabiliak izan dira, gramatika eta abar irakasteko.

Gaurko pedagogoak ez dakit zein garrantzia emango dioten memoriari irakaskuntza, baina zerbait eman behar bazaio eta eman behar ez bazaio ere laguntza galanta izango litzateke ikasleentzat bertsolariak eskolako gauzak bertsotan jartzea. Euskal Herrian, gainera,

ohitura handia dago bertsoak gogoan edukitzeko: jende asko dago ehun daka bertso buruz kantatuko duena eta bertso berriak berehala ikaste ko gaitasuna duena.

Hau ez da bertsolaritzak pedagogian egin zezaken gauza bakarra, seguru asko, baina izan daiteke bat, behintzat: memoria eta ikasle gaixoen lagungarri izatea.

Joxe Azurmendi